

# Hilerokoa eta gorputzen presentziak

**P**ertsona bakoitzak modu ezberdinean bizi du bere lehen hilerokoa. Gertatu baino lehen, pasarte horren inguruko berriak nagusiki etxetik, eskolatik edo lagunengandik etortzen dira, baina, ezinbestean, kalea eta komunikabideak ere informazio iturri dira. Eredu gehienetan gorputzaren inguruko azalpen fisiologikoak ematen dituzte, baina, nire ustez, mezu nagusiaren laburpena "hileroko = haurdun geratzeko aukera" da. Mezu orokorrak "kontuz, jada ez zara haur bat" adierazten du eta, testuinguru horretan, hilerokoa beldur edo arazo bihurtu dezake. Gainera, enegarren aldiz txertatuko dute, haien emakumea den gorputzaren eraikuntzan gizonaren presentzia.

Lehenengo aldian amari kontatu nion baina gero, ezkutuan nenbilen; ez nuen, zentzu horretan behintzat, handia izan nahi. Egoera asko luzatu zen, eta horrek gorputzaren kontzientzia falta adierazten du, asimilatu gabeko zerbait.

Aurrerantzean hilerokoa ohiko zerbait bihurtu zen, hor zegoen: mina ematen zuen, behar ez zuenean agertzen zen eta, beti, kulero edo praktika zikinekin bukatzen nuen. Ez nuen nire parte zen zerbait sentitzen, eraikuntza kanpotik eratorria zen. 2005. urtean hi-



Nora Barroso

ARGIA-KO BLOGARIA

Orduan zartako batez ulertu nuen hilerokoaren garrantzia; eta ez ama izan nahi edo gizon bat behar nuelako ondoan, hilerokoa nire osasunaren eta barne orekaren parte zelako baizik

lerokoa ez izaten hasi nintzen, halaber, nire gorputzean bestelako aldaketak sortu ziren. Buruan mikroprolaktinoma bat diagnostikatu zidaten (gurrui pituitarioaren tumore onbera bat).

Orduan zartako batez ulertu nuen hilerokoaren garrantzia; eta ez ama izan nahi edo gizon bat behar nuelako ondoan, hilerokoa nire osasunaren eta barne orekaren parte zelako baizik.

Adiskidetzeko prozesua gogorra eta polita izan da; gorputzaren intuizioari entzuten lagundu dit eta nire burua hobeto ulertzen dut orain. Bide horren eragina ez da soilik hilerokora mugatu: erlazioetan dago presente (afektiboak, sexualak, laguntasunezkoak...), ekin-tzak gauzatzeko moduan ikusten dut, hitz egiteko maneran.

Gehienetan gure gorputzetatik at bizi garela uste dut; eta, modu pausatuan nork bere esentzia ukitzen utzi baino lehen kanpoko aktoreak sartzen dizkigutela, gure barrua nahasiz.

Nor bere gorputzean bizi dela sentitzea, haren erritmoa ikustea... Hasiko al gara jendarte bezala barne eraikuntzatan zuzendari baino bidelagun izaten? Halako batean baztertuko al ditugu gorputzekiko, pentsamenduekiko... inposizioak? Inoiz behar duen espazioa emango al diogu barnea aditzeari? ■

